

GIZONAK, MASKULINITATEAK ETA BERDINTASUNA

Kultura bakoitzak gizonen portaera, jarrerak eta itxaropenak arautzen dituzten kode, estereotipo eta rol batzuk ditu. Beraz, esan dezakegu maskulinitatearen definizio "kultural" bat dagoela, identitate maskulino guztiak zeharkatzen eta baldintzatzen dituena. Horrela, gizarte-erakuntza jakin bati erantzuten diote gizonengandik espero denak eta kolektiboki gizon gisa identifikatzen ditugunak.

Hori dela-eta, badakigu maskulinitatea definitzen duten ezaugarriak ez direla sortzetikoak edo naturalak: sozialak dira, ikasiak. Horrek esan nahi du ez dagoela identitate maskulino bakar bat, ezta maskulinitate-eredu itxi bat ere; izan ere, errealitateari erreparatzen diogunean, "gizon izateko" hainbat modu aurkitzen ditugu.

IRAUPENA ETA DATAK

2 aste

Euskara. Iraunkorra
Gaztelania. Iraunkorra

MATRIKULA

Irekita, aldez aurretiko
eskakizunik gabe.

Egiaztatutako 10
prestakuntza-ordu

HELBURUAK

- Gogoeta egitea gizonen, maskulinitateen eta berdintasunaren arteko harremanari buruz, identitateak eraikitzeko moduari buruz eta gizonen sexu-orientazioari eta genero-adierazpenari buruz, horrek guzti horrek rolen sozializazioan, estereotipoetan eta genero-aginduetan nola jarduten duen eta, beraz, desberdintasun eta diskriminazio sexistak nola sortzen diren ikusteko.
- Eredu maskulino tradizionalak eta eredu horien aldaketak aztertzea, baita indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan eta identitate horiek indarkeria matxistan duten isla aztertzea ere.
- Gizonek etxeko lanetan eta gainerako pertsonen eta norberaren zaintzan duten inplikazioa aztertzea, baita sozializazio sexistak gizon batzuegan sortzen dituen genero-arazoak ere.



EMAKUNDE
EMAKUNEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

GIZONAK, MASKULINITATEAK ETA BERDINTASUNA

UNITATE DIDAKTIKOAK

1. modulua.
Sexu-genero sistema. Generoaren sozializazioa. Emakumeen eta gizonen arteko desberdinkerien egungo egoera.
2. modulua.
Maskulinitateak, erronkak, aldaketak eta erresistentziak eraikitzea.

IRAUPENA ETA DATAK

2 aste

Euskara. Iraunkorra
Gaztelania. Iraunkorra

MATRIKULA

Irekita, aldez aurretiko
eskakizunik gabe.

Egiaztatutako 10
prestakuntza-ordu

IRAKASLEAK

Emakunderen **GIZONDUZ** zerbitzuaren kontura

IKASTAROAREN MODALITATEA ETA BALDINTZAK

Autoprestakuntza. Ikastaro hau ikasleek modu autodidaktikoan ikas dezaten diseinatuta dago. Ikastaroak hainbat material teoriko eta aprobetxamendu-proba izango ditu, irakasleek parte hartu gabe.

Proba horiek gainditu ondoren, egiaztagiria eskuratzen da.

